

ziona, aita santuaren eskumenari buruz buru. XV. mendetik Vatikanoko I. Kontzilioa arte iraun zuen nolabait.

Bourges-eko Santzio Pragmatikoan (1438) gauzatu zen luzaroan Galikanismoaren borroka. Galikanismoak ez zion aita santuari Frantziako Elizaren ondasunei buruz eskumenik ezagutzen, ezta Eliz agintariak izendatzekorik ere. Bestalde, aita santuari buruz kontzilio unibertsalaren gailentasuna baieztatzen zuen. 1516an, *konkordatu baten bidez, kanpora gelditu zen Santzioa.

Galikanismoa berriro nabarmendu zen XVII. mendean Lau Artikulu Galikanoak deklarazioan eta geroago 1790ean Elizjendearen Konstituzio Zibila-ren inguruan. 1807ean beste konkordatu baten bidez egin zuten Erromaren eta Frantziako Elizaren arteko konponketa.

Aita santuaren hutsezinaren definizioarekin bukatu zen mende askotako tirabira.

Ik. Aita santua; Kontzilioa; Eliza nazionala; Estatu-Eliza.

Galmena

Sin.: Kondenamena; Kondenazioa

Kristau-teologian, Jainkoak *bekatu larritzko egoeran hildako bekataria betirako ifernuratzea, eta ifernura galduak jasaten duen zigorreko egoera bera.

Ik. Ifernua; Betiko heriotza; Hilan judizioa.

Gamma(dun) gurutzeta

Ik. Swastika.

Gantzuketa

Ik. Oliadura.

Garbaia

Ik. Damua.

Garbia/lohia

Sakratua/profanoa bezala, bizitzako esperimentzia antolatzeko eta ulertzeko sistema da lohia/garbia bikotea. Antolamendu horren izateko bi moduak dira lohia eta garbia. Ik. Sakratua/profanoa.

Erljioaren alorrean sakratuzkoarekin lotuta dago lohia/garbia bikotea: sakratuzkoaren arabera gambia da; sakratuzkoaren aurka egiten dena, berriz, lohia.

Garbia/lohia bikoteak hiru mailatako adiera du, hirurak erlijiozkoari lotuta:

1. Orain arte adierazitakoaren arabera, maila metafisikoan dago adiera hori, sakra-

tua/profanoaren parekoa. Lohia hitzaren ordez kutsatua edo zikina edo likitsa ere erabiltzen dira orduan.

2. Bigarren adiera maila etikokoa da bereziki: garbi (*garbitasuna) eta lohia (lohikeria) *santuari ala bekatariari dagozkion tasunak dira. *Bekatuaren ondorioa lohia edo kutsua da.

3. Berezikiago sexuzko jokabideari daude lotuta garbia/lohia hitzak. Lohi(keriazkoa) edo lizun(keriazkoa) da haragizko edo haragikeriazko bekatua; halako bekatutan dabile-nari, berriz, lohia, lizuna, haragikoa nahiz likitsa deritza.

* * * *

Kultura bakoitzak ditu bere arauak eta erregelak, bi barrutiotan (sozio-politikoan eta erlijiozkoan) gizakiak nola jokatu behar duen agintzen dutenak. Batean eta bestean gizakiak bere helburu gorenekoak lortzeko izatera eta jokaera egokienak adierazten ditu kultura bakoitzean garbiak. Lohiak, berriz, goreneko helburu horiek errespetatzeko eta eskuratzeko zertatik alde egin behar duen: hori adierazten du lohia.

Arau-legeok betetzeak dakartzan ondorioak zehaztugabe egon ohi dira, baina gutxi gorabehera ongizatea da nagusia. Alderantziz, horiek urratzeak dakartzan ondorioak oso zehaztuta egon ohi dira, eta izaten dira: nekea, *eritasuna, *heriotza, etab.

Kultura eta erlijio batzutan --e.b., *hinduismoan eta *judaismoan-- oso bizia da lohia/garbiari buruzko kontzientzia; zer, noiz eta nola jan esaten duten arauak daude; baita norekin eduki harremanak agintzen dutenak ere; gauza batzuk eginez --gerra eginez eta-- lohitu egiten da gizakia; fisiologi prozesu batzuk ere --hilerokoak, erditzeak, etab.ek-- lohitu egiten dute. Norbait lohituz gero, garbitzeko zer egin behar duen agintzen duten arauak ere badaude normalean erlijio bakoitzean.

Sarritan kulturak sakratutzat daukana, garbiaren zentzua du; horregatik, edozer sakratu-garbiarekin harremanetan sartzeko, zenbait arau bete behar izaten da, gauza sakratua bera ez lohitzeko eta, aldi berean, garbia dagoenari lohitasuna ez kutsatzeko.

Euskaldunen artean bazen ohitura, arbolaren bat bota aurretik, berari baimena eskatzekoa. Baldintza hori betetzen ez bada, epaitzen duena lohitu egiten omen da eta arbolari berari lohitasuna kutsatzen omen dio.

Ik. Bekatua; Garbikuntza; Garbikuntz erri-toak; Erritoko garbitasuna.

Daniel Metzger
Itz. eta mold.: Paulo Agirrebaltzategi